

MAIATZA

Maiatzean zehar eguna ia ordubete luzatzen da. Eguzkia maiatzaren lean: irten 6,13etan, sartu 20,09etan. Ekainaren lean: irten 5,46etan, sartu 20,38etan.

Maiatzak 5, 13,46etan, ilargi berria (ilgora hasi)
 “ 12, 16,19etan, ilgora
 “ 17, 19 eta 20 TENPORA-EGUNAK
 “ 20, 20,16etan, ilargi betea (ilbehera hasi)
 " 21, 3,54etan Eguzkia Gemini arora sartzen da
 “ 28, 6,01etan, ilbehera

* ordu ofizialak.



I.X.I.

	EREIN		LANDATU	UZTA
BARATZA	Ilgora * Kuia (denak) * Kalabazina * Leka * Dilista * Baberruna * Artoa * Azalorea (udakoak) * Baba beltza * Luzokerra * Ekilorea * Garbantzia * Angurria * Meloia * Tomatea	Ilbehera * Espinaka * Letxua (denak) * Apioa * Zerba * Borraia * Gardua * Porrua * Azak (uda-udazken garaiko barietate guztiak) * Txikoria * Erremolatxa gorria	* Tipula * Tomatea * Letxua (denak) * Zerga (goiztiarra) * Orburua * Porrua (goiztiarra) * Patata (jasotzekoa) * Batata * Marrubia	* Zerba * Espinaka * Letxua * Eskarola * Azenarioa * Apioa * Ilarra * Baba zuria * Marrubia * Baratzuri berdea * Txikoria * Endibia * Azenarioa * Porrua
BELARRAK	* Perrexila * Ezkaia * Tipulina * Azitraia * Anis-belarra * Mendafina * Mihilua * Apoperrexila * Erromeroa * Salbia * Belar bedeinkatua			* Kamamila * Perrexila * Huntza * San Jose-loreak * Apoperrexila

Erein: hazia

Landatu: * Landarea
 * Aldaska
 * Erreboila
 * Begia
 * Zainak
 etab.

FRUITARBOLAK

Sagarrondo eta madariondoetan fungizida-tratamenduak egiteko garaia da, PIKARDATUA izeneko gaitzari aurre egiteko batipat; gaitz hau lorea erortzen denetik ekainaren amaia arte kutsa daitekeenez, aurrea hartu.

Hilaren azkenetik aurrera FRUITU-HARRA kontrolatu beharko da, mahairako barietateetan behintzat.

Hilean behineko intsektizida-tratamendu hau, PIKARDATUAren aurkako fungizidaz bat egin daiteke.

Landarezorriaren erasoak, ikusi ordurako kontrolatu beharko dira intsektizida egoki batez.

ESAERAK

- * San Miel Maiatzeko, hau egune!
(Gabiria)
- * Martxoak maiazten badu,
Maiatzak martxoetan du.
- * Maiatz eurite, urtea ogite;
hotza eta luzea, akabo gure laborea.
- * Asentzio euritsu, urtea ogitsu
(Araotz)
- * Maiatz luzea, maiatz gosea,
harek hil zian nere alaba gaztea
(Urdiain)
- * Maiatzeko lorea, udaren florea
(Gabiria)
- * Hotzarekin maiatza, zertxobait motela;
beroarekin, berriz, eskatu bezala.
- * Maiatza pardo, ekaina klaro,
ordian izain da ogi ta arno.



J.L.Teres

BITXIKERIA

Polinizazioa eta erleak

Nahiz eta landareen mundu zabalean loreak urte guztian aurkitu ahal izan, loreen hilabete bezala maiatza ezagutu ohi da. Hala ere ba al dakigu loreak landarean zein zeregin duen?

Lorea landarearen ugalganganoa da; hau da, espeziearen jarraipena eta ugalketa segurtatuko duen hazia (fruitua), loretik ekoiztuko da.

Loraldia, lehen lorea ireki eta petaloak erortzen hasten diren arterainoko tartea da. Loraldiko gertakizunik garrantzitsuen polinizazioa da. Polinizazioa, anteretan ekoiztu diren polen-aleak (♂) loreko estigmaraino (♀) heltzea da eta ernalketa gerta dadin ezinbesteko urratsa.

Polinizazio-prozesua ahalik eta baldintzarik egokienetan gauzatzea ezinbestekoa gertatzen da gaur egun, etekina hazi edota fruituetan ematen duten landareetan.

Polinizazioa burutu dadin, gehienetan, agente polinizatzaile bat beharrezkoa da. Agente hau, haizea, intsektu bat, gizakia bera etab. izan daitezke. Baratzantza eta fruitazantzan agente polinizatzaile garrantzitsu eta beharrezkoena erle arrunta da; soroetan gertatzen diren polinizazioen %73-88tan bera bait da eragile. Hona hemen baratza, sagasti eta abarretan erlauntzak kokatzea garrantzitsua zergatik den. Hori dela eta, fruitazain askok loraldian bere arboladian kokatzeko erlauntzak alokatzen dizkie erlazainei.

Erleak garraiatzaile

Erle arruntak abantaila ugari du polinizatzaile bezala: lehen-
txeago aipatu bezala portzentaia handi batean bera da agente

nagusi, erlauntzak erraz garraia daitezke behar diren tokietara, erleak irtenaldi bakoitzean lore-espezie bakarra pasatzen du eta egun batean zehar lore-kantitate handia "bisitatzen" du. Hau garrantzitsua da oso; loraldiak egun gutxikoak izaten bait dira (sagarrondoan 10-12 egunekoa, madariondoan 8koa, gereziondoan 8-12koa etab.).

Erleek polinizatzaile-lan hau bere elikagai nagusi diren polena eta nektarra lorez lore bilduz gauzatzen dute; loretik lorerako ibilaldietan, batzuen polen-aleak atzeko hanketan garraituz gero bisitatuko dituen loreen estigmatan gelditu bait daitezke, eta espezie bereko loreak izanik polinizazio gurutzatua gertatzen da, lore bat beste lore batean ekoizturiko polen-ale batek ernaltzea bideratuz. Ernalkuntza horrek, lore horretan fruitua hazteko aukera segurtatzen du.

Polinizazioa gauzatzeko oso epe laburrak daudela kontutan harturik (loraldi motzak), garai hauetan nagusi diren baldintzek garrantzi handia dute. Polinizazioari laguntzeko egokiak dira: eguraldi ona (temperatura epela eta giro eguzkitsua) eta landareen egoera (ondo elikatuak etab.); loraldia, polen-ekoizpena etab. hobeak izango bait dira. Polinizazioa faktore hauek murrizten dute: haizeak (estigma lehortu eta erleen hegaldia oztopatzen du), euriak (polena garraiatu, anterak leherterazi, hegaldiak oztopatu etab. egiten du) eta temperatura altu eta baxuek (20°-25° egokiena). Polinizazioaren murrizketan aparteko garrantzia eman behar zaie landareen tratamenduei. Loraldia puri-purian dagoen garaian inoiz ez tratatu, nahiz eta produktuaren etiketan erleentzat jasagarriak direla aipatu.

Hona hemen erleak erabilia polinizaturiko zenbait landaketatan lorturiko ekoizpen-hobekuntzak.

Landarea	Ekoizpen-hobekuntza	Non
Sagarrondo	%30-50	S.E.S.B.
Sagarrondo	%209	Hungaria
Madariondo	%200-300	Bulgaria
Madariondo	%107,6	Italia
Gereziondo	%200-400	Alemania eta EEBB
Almendrondo	%600	EEBB
Marrubia	%20-15	Ingalaterra
Mugurdiondo	%200	Suedia
Alpapa	%300-400	EEBB
Tipula (hazitarako)	%1000	EEBB

Hona hemen fruitu-soroetan polinizatzeko erabili ohi diren erlauntz kantitateak:

Sagarrondo	4	erlauntza/hektarea
Madariondo	8	"
Irasagarrondo	3	"
Almendrondo	6-8	"
Kiwi	9-12	"
Aranondo	4	"
Gereziondo	8	"
Abrikotondo	3	"
Melokotoi-arbola	3	"